

2. taula. **Tabakoa erretzeari uzteko farmakoak** ⁽¹³⁾

Farmakoak	Aurkezpenak	Ohiko dosia	Tratamenduaren iraupena	Jarraibideak
Nikotina-partxeak (Nicorette® Nicotinell®, Niquitin®)	16 orduko partxeak: 10 mg eta 15 mg (Nicorette®) 4,3-4,9 € / 16 orduko partxea 24 orduko partxeak: 7 mg, 14 mg eta 21 mg (Nicotinell®, Niquitin®) 2,9-6,3 € / 24 orduko partxea (finantzatu gabeak)	Hasi partxea erabiltzen erretzeari uzteko aukeratutako egunean. 16 orduko partxeak: (egunero partxe bat jarri jaikitzean, eta kendu oheratzean) 8 aste: 15 mg 4 aste: 10 mg 24 orduko partxeak: – Nicotinell® Fagerström testaren puntuazioa ≥ 5 edo egunean ≥ 20 zigarreta erretzen dituztenak 3-4 aste: 21 mg 3-4 aste: 14-21 mg 3-4 aste: 7-14 mg Fagerström testaren puntuazioa < 5 edo egunean < 20 zigarreta erretzen dituztenak 3-4 aste: 14-21 mg 3-4 aste: 7-14 mg 3-4 aste: 7 mg edo suspentsioa – Niquitin® (6 aste: 21 mg; 2 aste: 14 mg; 2 aste: 7 mg). Gutxi erretzen duten pertsonen kasuan (adibidez, egunean < 10 zigarreta erretzen dituztenen kasuan), zera gomendatzen da: 14 mg-rekin hasia 6 astez, eta dosia 7 mg/24 ordura jaistea azken bi asteetan.	Nicorette® y Nicotinell®: 3 hilabete (gehieneko iraupena: 6 hilabete, non eta medikuak ez duen jarraitzea gomendatzen, berak gainbegiratuta) Niquitin®: 10 aste (gutxi erretzen dutenentzat, 8 aste) Gehieneko iraupena: 9 hilabete.	Erabili larruazal lehor, ile gutxiko eta lesiorik gabearen gainean. Ez eduki partxea beti toki berean; mugituz joan. Ez erabili azaleko tolesturetan. Garbitu eskuak partxea jarri aurretik.

Farmakoak	Aurkezpenak	Ohiko dosia	Tratamenduaren iraupena	Jarraibideak
Nikotina-txikleak (Nicorette® Nicotinell®, Niquitin® Quitt®)	2 mg-ko eta 4 mg-ko txikleak 0,3-0,62 € / 2 mg-ko txikleak 0,4-0,65 € / 4 mg-ko txikleak (finantzatu gabeak)	2 mg-rekin edo 4 mg-rekin hasi, mendetasunaren, sintomen intentsitatearen edo zigarreta-kopuruaren arabera. Ohiko dosia: 8-12 txikle egunean. Dosifikazio-pauta finkoak probatu (txikle bat / 1-2 ordu). Gehieneko dosia: Nicorette®: 24 txikle egunean; Nicotinell®: 2 mg-ko 24 txikle eta 4 mg-ko 15 txikle egunean; Niquitin®: 15 txikle egunean, eta Quitt®: 2 mg-ko 24 txikle eta 4 mg-ko 16 txikle egunean Apurka-apurka murriztu; pazienteak egunean 1-2 txikle erabiltzen dituenen, eten.	Gehieneko iraupena: 6 hilabete.	Erretzeko gogoia etorri gero, sartu txikle bat ahoan, eta "mastekatu eta gelditu" teknika erabili: 5-10 aldiz mastekatu zapora "mina" dastatu arte (edo kilika sentsazio leun bat izan arte), eta, orduan, jarri txikleak hortzoien artean eta masailaren artean (alde batek bestera aldatuz). Zapora desagertzen hasten denean, berriro mastekatu. Errepikatu prozesua 30 minutuz, eta gero bota txikleak. Ez hartu kaferik edo likido azidoztailerik (zukuak, freskagarriak), zeren eta aho-barrunbean nikotina gutxiago xurgatzea eragin baitezakete. Ez jan eta ez edan ezer 15 minutu lehenagotik.
Nikotina-konprimatuak, miazkatzeko (Nicorette® Nicotinell®, Niquitin®)	1 mg-ko, 2 mg-ko eta 4 mg-ko konprimatuak 0,42-0,60 € / 1 mg-ko konprimatua 0,48-0,82 € / 2 mg-ko konprimatua 0,57-0,82 € / 4 mg-ko konprimatua (finantzatu gabeak)	1 mg-rekin, 2 mg-rekin edo 4 mg-rekin hasi, mendetasunaren, sintomen intentsitatearen edo zigarreta-kopuruaren arabera. Ohiko dosia: 8-12 konprimatu egunean. Dosifikazio-pauta finkoak probatu (konprimatu bat, 2 orduan behin). Gehienek 15 konprimatu egunean, dosiaren arabera, 1 mg-ko Nicotinell® izan ezik (24 konprimatu egunean). Apurka-apurka murriztu; pazienteak 1-2 konprimatu hartzen dituenen, eten.	Gehieneko iraupena: 6 hilabete.	Sartu miazkatzeko konprimatu bat ahoan, eta disolbatzen utzi. Noizbehinka, konprimatua ahoaren alde batetik bestera mugitu behar da, guztiz disolbatu arte. Ez mastekatu, eta ez irentsi konprimatua osorik. Ez hartu kaferik edo likido azidoztailerik (zukuak, freskagarriak), zeren eta aho-barrunbean nikotina gutxiago xurgatzea eragin baitezakete. Ez jan eta ez edan ezer 15 minutu lehenagotik.
Nikotina- ahoko lainoztapenerako soluzioa (Nicorette®)	Disoluzioa: 1 mg, pultsazioko 39,95 €/bilgarria (finantzatu gabea)	1 edo 2 lainoztatze, erretzeko gogoia agertzen denean. Applikazio bakoitzean gehienek 2 pultsazio, edo 4 pultsazio orduko. Egunean 64 pultsazio gehienek ere. Apurka-apurka murriztu; pazienteak egunean 2-4 pultsazio erabiltzen dituenen, eten.	Gehieneko iraupena: 6 hilabete. ahoko lainoztapenerako soluzioa	Banagailua kargatu. Aho barrura apuntatu, ahalik eta gertuen, eta ezpainak saihestu. Ez inhalatu ematen den bitartean, eta ez irentsi lainoztatu ondorengo segundoetan.

Farmakoak	Aurkezpenak	Ohiko dosia	Tratamenduaren iraupena	Jarraibideak
Bupropionaren konprimatuak (Zyntabac®)	150 mg. 13 € / 30 konprimatu-ko bilgarria, eta 26,01 € / 60 konprimatuko bilgarria. 150 mg. 142,34 € / 100 konprimatuko bilgarria (finantzatu gabea) 300 mg. 26,01 € / 30 konprimatuko bilgarria	Hasi tratamendua erretzeari uzteko aukeratutako eguna baino 1-2 aste lehenago. 1-6 egunak: 150 mg-ko konprimatu bat egunean. 7. egunetik amaierara arte: 150 mg-ko konprimatu bat, egunean 2 aldiz (gutxienez 8 orduko tarte batez bereizita)	7-9 aste Zazpi aste igaro eta efekturik ez badago, tratamendua eten egin behar da.	Konprimatu osoak hartu, maste-katu gabe. Azkeneko dosia ahalik eta goizen hartu behar da, insomnia saihesteko. Ahaztuz gero, ez bikoiztu dosia, eta hurrengo dosia ohiko orduan hartu. Gidatzeko edo makina konplexuak erabiltzeko gaitasuna gutxitu dezake.
Bareniklinaren konprimatuak (Champix®, Byteqi®, Cuitvar®, EFG)	0,5 mg. 58,73 € / 56 konprimatuko bilgarria 0,5 mg-ko 11 konprimatu + 1 mg-ko 42 konprimatu 54,37 € / bilgarria 1 mg. 56,56 € / 56 konprimatuko bilgarria, eta 182,28 € / 112 konprimatuko bilgarria (finantzatu gabea).	Hasi tratamendua erretzeari uzteko aukeratutako eguna baino 1-2 aste lehenago. 1-3 egunak: 0,5 mg-ko konprimatu bat egunean. 4-7 egunak: 0,5 mg-ko konprimatu bat, egunean 2 aldiz. 8. egunetik amaierara arte: 1 mg-ko konprimatu bat, egunean 2 aldiz. Ondorio kaltegarriak toleratzen ez badira, dosia murriztu: 0,5 mg, egunean 2 aldiz.	12 aste Beste 12 astez luza daiteke tratamendua (finantzatu gabea).	Konprimatu osoak hartu, baso bat urez lagunduta, urdaila beteta dagoela. Dosi bat ahaztuz gero, lehenbait lehen hartu, non eta ez diren 4 ordu edo gutxiago falta hurrengo hartualdirako. Hartzea ahaztuz gero, ez bikoiztu dosia. Gidatzeko edo makina konplexuak erabiltzeko gaitasuna gutxitu dezake.

Farmakoak	Aurkezpenak	Ohiko dosia	Tratamenduaren iraupena	Jarraibideak
Zitisiniklinaren konprimatuak (Todacitan®, Recigarum® Zandra-qet®)	1,5 mg. 111,09 € / 100 konprimatuko bilgarria	Pauta: 1-3 egunak: Konprimatu bat, 2 orduan behin (gehienez 6 konprimatu egunean) 4-12 egunak: Konprimatu bat, 2,5 orduan behin (gehienez 5 konprimatu egunean) 13-16 egunak: Konprimatu bat, 3 orduan behin (gehienez 4 konprimatu egunean) 17-20 egunak: Konprimatu bat, 5 orduan behin (gehienez 3 konprimatu egunean) 21-25 egunak: 1-2 konprimatu egunean (gehienez 2 konprimatu egunean) Posologia konplexua da, eta arreta handia eskatzen du. Ziurtatu behar da pazienteak ulertu duela nola hartu behar duen medikamentua*. Berandueenez, tratamenduaren bosgarren egunean utzi behar zaio erretzeari. Behin tratamendua hasita ez da erretzen jarraitu behar, horrek ondorio kaltegarriak okerragotu ditzakeelako.	Tratamenduak 25 egun irauten du. Tratamenduak huts egiten badu, eten egin behar da, eta bi edo hiru hilabete igaro ondoren ekin ahal izango zaio berriro (ez da finantzatuko).	Konprimatuak ahotik hartu behar dira, ur-kantitate egokiarekin.

* Duela gutxiko ausazko saiakuntza batzuek dosifikazio errazagoaren alde egin dute (3 mg, egunean hiru aldiz, 6 edo 12 astez), antzeko eraginkortasun-maila lortzen baita; nolanahi ere, gaur egun pauta hori ez dago onartuta fitxa teknikoan eta ez dator bat finantzaketa-baldintzekin ^(4,22). Informazio gehiago nahi izanez gero, medikamentu hauen [fitxa teknikoak](#) ere kontsulta daitezke.